

Bilbao Bizkaia Kutxa Aurrezki Kutxa eta Bahitetxea (2095-BBK) (aurrerantzean BBK), Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa (2101-Kutxa) (aurrerantzean Kutxa) eta Caja de Ahorros de Vitoria y Álava-Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa (2097-Vital) (aurrerantzean Vital) erakundeek euren finantza-jarduera berrantolatzea erabaki dute, eta horretarako, aipatutako hiru Kutxek eta Kutxabank, S.A. bankuak kontratu-oinarria duten kreditu-erakundeen talde bateratua ezarri dute. Talde honen burua Kutxabank, S.A. izango da eta honen oinarri juridikoa finantza-bitartekarien inbertsio-koefizienteei, baliabide propioei eta informazio-betebeharrei buruzko maiatzaren 25eko 13/1985 Legearen 8.3. d) artikuluan dago.

Ondorio hauetarako BBK, Kutxa eta Vital erakundeek euren finantza-negozioak Kutxabank, S.A. erakunde bantantzea erabaki dute, beraz, aipatutako kutxek, kreditu-erakunde diren aldetik, bere helburu propioa zeharka burutuko dute aurrerantzean, aurrezki kutxen gobernu-organoei eta erregimen juridikoaren beste alderdi batzuei buruzko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege-Dekretuaren 5.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Beraz, 2012/1/1etik aurrera jasoko dituzun dokumentu guztietan, honako hauek hartu behar dituzu aintzat:

Zuk BBK, Kutxa, edo Vitalekin 2012ko urtarrilaren 1a baino lehen sinatutako kontratu-dokumenturen baten kopia eskatu edo jaso baduzu 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, bertan adierazten den datan zuk BBK, Kutxa edo Vitalekin hurrenez hurren sinatutako kontratu-baldintzen kopia bat dela jakinarazten dizugu, eta bere garaian jakinarazi zitzazunez, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, BBK, Kutxa edo Vitali Kutxabank, S.A. darraie unibertsalki. Kutxabank, S.A. kreditu-erakundeak Bilboko Kale Nagusiko 30-32an du egoitza, A95653077 IFK eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa. Ondorioz, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, aipatutako baldintzetan BBK, Kutxa edo Vitali egozten zaizkien erreferentzia guztiak Kutxabank, S.A.ri buruzkoak direla esan nahi da.

2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako dokumentua baduzu esku artean, eta bertan BBK, Kutxa edo Vital agertzen badira alderdi kontratugilearen atalean, erakunde horiei buruzko erreferentziak Kutxabank, S.A.k ordezkatzeko dituela esan nahi da. Kutxabank, S.A. kreditu-erakundeak Bilboko Kale Nagusiko 30-32an du egoitza, A95653077 IFK eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa eta BBK, Kutxa eta Vitali darraie unibertsalki.